



CENTRO INTEGRADO **ESCUELA
DE EDUCADORAS Y EDUCADORES**

HEZITZAILE ESKOLA
IKASTETXE INTEGRATUA

Gure etorkizuneko profesionalak pertsonekin eta beren taldeekin esku hartzen dute beren inguruneetan, kalitatezko hezkuntza eta lanbide harreman baten bidez, pertsonen gaitasunak eta beharrak errespetatzean oinarrituta. Horretarako jakintzaren hiru alderdiren beharra planteatzen dugu: **Jakin, Egiten Jakin** eta **Izaten Jakin**.

Gure ustez, funtsezkoa da **lanbide-munduarekiko lotura hasieratik izatea**. Hori dela eta, praktikak ziklo guztietan egiten dira lehenengo mailatik, bai erakunde publikoetan, bai pribatuetan.

Metodologia aktiboak erabiltzen ditugu eta ikasleei jarraipen **personalizatua** egiten diegu.

www.escuelaeducadores.educacion.navarra.es

Erpeleta Jauregia - Kale nagusia, 65
31001 - IRUÑA
848 43 09 70

GOI MAILAKO LANBIDE HEZIKETAKO ZIKLOA

Haur Hezkuntzako

GOI MAILAKO TEKNIKARIA

MODALITATE PRESENTZIALA **GAZTELERAZ** ETA **EUSKARAZ**

ONLINE-KO MODALITATEA **GAZTELERAZ**



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra
Hezkuntza Departamentua
Departamento de Educación

TodoFP.es

GAITASUN OROKORRA

Titulu honetako gaitasun orokorra Haur Hezkuntzako lehen zikloko haurrentzako hezkuntza proiektu eta programak diseinatu, inplementatu eta ebaluatzean datza, esparru formalean, Haur Hezkuntzako espezializazioa edo gradu titulu baliokidea duen maisu edo maistra batek egindako proposamen pedagogikoari jarraituz, eta etapa osoko haurrentzakoak, berriz, esparru ez-formalean, ingurune seguruak sortuz eta beste profesional batzuekin eta familiekin batera lan eginez.

HAUR HEZITZAILEAK HEZITZAILEAK esku-hartze sozioedukatiboko profesionalak dira eta haurren garapen integrala zaindu eta laguntzen dute, beti ere harreman afektibo pribilegiatua ezarriz, haurra pertsona gisa errespetatzen ahaleginduz. Eguneroko bizitzako eta jolaseko jardueren balio hezigarria ezagutzen dute, eta haur bakoitzaren jarduera autonomorako baldintza egokiak sortzen dituzte, adierazteko modu desberdinak sustatuz.

Era berean, familiekin esku hartzen dute eta lan-taldean aritzen dira hainbat profesionalekin.

LANBIDE JARDUERAK

Profesional horiek hezkuntza formalaren (haur-eskolak) eta ez-formalaren (0-3 urte arteko haurrei arreta emateko zentroak, lagun etxeak, familia-espazioak, ludotekak, liburutegiak...) sektorean eta haurrak zaintzeko gizarte zerbitzuen sektorean jarduten dute.

LANBIDE ETA LANPOSTU GARRANTZITSUENAK HAUEK DIRA:

- Haur hezitzailea etaparen lehen zikloan (0-3 urte), ikastetxe publikoetan eta pribatuetan.
- Haur-hezitzailea arrisku sozialeko egoeran dauden 0-6 urte bitarteko adingabeekin lan egiteko programa edota erakundeetan edo familia-laguntzako zerbitzuetan.
- Haur-hezitzailea haurren aisialdiko eta denbora libreko programa edota jardueretan.
- Haur-hezitzailea 0 eta 6 urte bitarteko haurrekin: ludotekak, kultur etxeak, liburutegiak, ikastetxeak, aisialdi-zentroak, baserri-eskolak ...

LANBIDE MODULUAK



CENTRO INTEGRADO ESCUELA
DE EDUCADORAS Y EDUCADORES
HEZITZAILE ESKOLA
IKASTETXE INTEGRATUA

LANBIDE MODULUAK

1 MAILA

ORDUAK

Astean | Guztira

| | | |
|--|---|-----|
| HAUR HEZKUNTZAREN DIDAKTIKA | 4 | 130 |
| HAURREN AUTONOMIA PERTSONALA ETA OSASUNA | 6 | 190 |
| HAURREN JOLASA ETA HORREN METODOLOGIA | 7 | 220 |
| INGELESA I | 2 | 60 |
| GARAPEN KOGNITIBOA ETA MOTORRA | 5 | 160 |
| GARAPEN SOZIOAFEKTIBOA | 3 | 100 |
| LANERAKO PRESTAKUNTZA ETA ORIENTAZIOA | 3 | 100 |



Lanbide-Inguruneetako Prestakuntza lehen ikasturtetik

LANBIDE MODULUAK

2 MAILA

ORDUAK

Astean | Guztira

| | | |
|--|----|-----|
| ADIERAZPENA ETA KOMUNIKAZIOA | 5 | 160 |
| GIZARTE TREBETASUNAK | 3 | 100 |
| FAMILIEKIN ESKU HARTZEA ETA ARRISKU SOZIALA DUTEN ADINGABEKOEI LAGUNTZEA | 3 | 100 |
| HAURREI LAGUNTZEKO PROIEKTUA | 3 | 100 |
| LEHEN SOROSPENAK | 2 | 70 |
| ENPRESA ETA EKIMENA | 2 | 70 |
| LANTOKIETAKO PRESTAKUNTZA | 14 | 440 |



Metodologia Aktiboetan oinarritutako Ikaskuntzak



Prestakuntza-laguntza Pertsonalizatua